

# BERRIKETAN

Debako herri aldirkaria - 250. alea - 2020ko apirila



**Harreman eta lan molde  
berrietara egokitu nahian**






**Seven Clovers**  
Irish pub  
943 191 295

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

*Calbeton*



JATETXEA

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan


Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**50 URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan trañoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak




Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com



**ieraenea**  
“maite ditut nire/gure basorrak”

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Telf:943 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com



**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**k**  
**kutxabank**

**sasoi**iko

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- Gimnasia hipopresiboak
- Dietista
- Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotna11.com

# AURKIBIDEA

4

## GUTUNAK

“Kultur Elkartea-  
Udala”;  
“Zorionak,  
Kolore Anitz!”

7

## ALBISTEAK

Asteroko buletina  
kaleratuko du Udalak;  
Aberri Egunean ere  
balkoiak protagonista

8

## KOLABORAZIOA

Debako Nagusilan  
Taldeak parte hartu du  
“Herrikoak berriketan”  
atalean

9

## ERREPORTAJEA

Koronabirusaren  
eraginez bizi dugun  
errealitate berezia,  
herritarren ahotan

16

## B. GAZTEA

Mendata institutua  
itxita dago Covid-19  
dela eta; ikasle baten  
egunerokoa irakurgai

## Urteko batzar orokorra atzeratu du Zuhatzak

Koronabirusa dela eta Zuhatzak aurtengo batzar orokorra atzeratzea erabaki du bere azkeneko bileran.

Egoera berezi honek ahalbidetzen duen neurri eta moduan lanean darrai Zuhatzako lantaldeak. Nahiz eta ekimen batzuk dagoeneko bertan behera utzi behar izan dituen (Mintzalaguna, kultur ekitaldiak...), beste batzuei eustea lortu du, esate baterako, nahiz eta tirada txikituta, *Berriketan* hilabete-kariak ohiko moduan eta datan ikusi du argia oraingoan ere, gainera pdf-an ere kaleratu da ahalik eta etxerik gehienetara iristen saiatzeko. Aurrerantzean ere, egoera berezi honek iraun arren, *Berriketan* kaleratzen

saiatuko da lantaldea.

Bestelako ekimenei dagokienez, erakundearen aurrekontuekin erabat lotuta daude, eta egoera berezi honetan aurrekontuak oraindik onartu gabe daudenez, zurgabetasunean aurkitzen da elkarteak. Hortaz, aurreikusita zituen ekimen ugari ditu kolokan: ekimen kulturalak, udalekuak, hedabideak sarera salto egiteko erronka eta bazkide-kanpaina, besteak beste.

Bazkide-kanpainarekin lotuta, kuota igotzea ere bazuen Zuhatzak asmoen artean, baina lehendabizi egoera honen bilakera ikusi beharko du. Momentuz, osasun-

larrialdi honek ekonomian ere arrastoa utzi-ko digula jakitun, urteroko moduan bazkide-kuota ekainean pasa beharrean udazkenean pasatzea erabaki dute elkartekoek.

Urteko batzarrean aurkeztu izan ditu elkarteak jardueraren nondik norakoak (kontuak eta ekimenen plangintza) garaio-tan, baina oraindik informazio nahikorik ez duenez, beranduago egin beharko du hori. Ahal bezain pronto egingo du elkarteak batzarrerako deialdia, bazkideekin dena partekatu eta haien ekarpenak jasotzeko. Bitartean Zuhatzarekin harremanetan jarri ahal izango dira bazkideak emailaz edo telefonoz edozeren berri izateko.

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefona: 632 043 322  
Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA

**Zuhatzak**  
euskarako elkarteak Deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatzak Euskara Elkarteak. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Erredakzioa:** Alex Turrillas, Nagore Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzioa

**Publizitatea:** Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabete-karia

**Lege gordailua:** SS-246-2009

**Inprimategia:** Euskalinpri

ISSN 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## Kultur Elkartea-Udala

*Berriketan*-en aurreko alean, hau da, martxokoan, irakurriko zenuten Kultur Elkartearen idatzia, non besteak beste aipatzen zuen "Kultur Elkartea egiten ari den berritze eta zabaltze lana gutxiesten dugula". Gure asmoa ez da inola ere inoren lana gutxiestea, baizik eta, gure ustez, gaizki egindakoak adieraztea. Badakigu Kultur Elkarteko zuzendaritza taldearen lana ez dela erraza eta borondatezkoa dela, baina lorategian egindako esku-hartzea ikus-  
tea besterik ez dago dena ondo egiten

ez duela ikusteko.

"Kultur Elkartea proposatutako lekuari uko egin diogula" ere esaten da bertan; noski, uko egin diogu proposatutako lekuari. Kultur Elkartera idatzitako eskutitzetan argi utzi genuen proposatutako tokiek ez zituztela behar ditugun baldintzak betetzen. Gainera "aurkitutako irtenbidea"ri dagokionez, oraindik irtenbidearen zain gaude.

Baina ez gaude geldirik. Martxoaren 5ean kultur zinegotziari eskutitza idatzi genion, Oteizaren mol-

deak non jarri erabaki bitartean, guri lekuren bat uzteko ikastaroarekin aurrera egiteko, baina oraindik ez dugu erantzunik jaso. Badakigu une honetan Udalak arazo garrantzitsuagoak izango dituela, baina gurekin ez ahazteko eskatu nahi genioke hemendik.

*Itsaso Aramendi, Irene Askasibar, Arantza Beristain, M<sup>a</sup> Mar Cabeza, Elena Egaña, Lierni Garcia, Arantza Iriondo, Ana Larrañaga, Ana Lizarazu, Amaia Onaindia, M<sup>a</sup> Luisa Perosanz, Izaskun Santos, Ainara Sedano, Itziar Uranga*

## Zorionak, Kolore Anitz!

Bi hitzetan eskerrak eman nahi dizkizuet egiten ari zareten lan bikainarengatik. Momentu zailak dibertigarriagoak egiteagatik. Haur guztien aurpegietan irribarre handi bat margo-

tzegatik. Eta, bukatzeko, nire lore more kutuna hain bizirik mantentzeagatik.

Zorionak, Kolore Anitz!

*Kolore artean mugituz  
etxe guztia apainduz  
aita ta amatxokin egunero  
momentu goxoak pasatuz*

*Denok babestuz  
etxean geldituz  
eskuak garbituz!!*

*Mila-mila esker  
Kolore Anitz  
momentu guztiak goxatuz!*

*Emili Sukia*



**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbiztuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3 20820 DEBA  
Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net



## Mugatutako egunak

Udaberria ate-joka zetorrela-eta, konturatu orduko egunak luzatzen hasi dira. Berdetasun berriaren usain freskoa arnastea, ordea, aurreragoko planen zerrendan idatzi beharko dugu. Itsasoko olatuen soina hormen artetik sentitu. Aurten, urtarok eskaintzen dizkigun opariak etxetik behatzea beste erremediatorik ez zaigu geratzen.

Ordu txikiak jo dute, eta erlojuaren orratzek bira ugari eman dituzte gurasoko lotaratu direnetik. Ni, ostera, izarapean; begiak itxi arren, ez dago nire bihotz-taupadak baretzeko modurik. Sentimenduez mintzo garenean, badira zenbait norbere arima dantzan jartzeko haina indar dutenak. Dena beltz ikusten dudan

gauetan, beldur naizenean, bada babes-ten nauen argi-izpi bat, egoeraren zapo- re garratza gozo bihurtzen duena. Bada, bai, maite dudan zer bait.

Denboraren kapsulan sartu eta hila- bete batzuk atzera egiten badugu, nire gorputzaren barru-barrutik amets berri bat sortzen ari zela ohartu nintzen, Aladinen kriseilutik ihes egindako desio bat bailitzan.

“Mendian korrika nabilenean aske sentitzen naiz. Hegan egiteko behar ditudan hegalak ematen dizkit. Hitzak eteten dira, denbora gelditu, bihotz tau- padak pausatu. Segundo bakoitza dasta- tu dezaket eta aldi berean denboraren zentzua galdu.

Nire gorputzeko arma guztiekin adierazten naiz. Orri zuri baten gaineko pintzel bilakatu eta, umeen antzera, bizi grinaz beteriko marrazkiak irudikatzen ditut.

Gailurretik, itsas mugari so egin eta begirada galtzen dut. Zerutik gertu sentitzen naiz, gainontzekotik urrun”.

Zabaldu begiak eta besarkatu natura. Behatu, hausnartu, sentitu, pentsatu, amestu eta ekin. Gozatu eta gozarazi. Zaindu ezazu mendia. Zaindu inguru-koak. Zaindu zure burua. Eta bizi, maite, beti aske.

*Beñat Escudero Unanue*

iritzia

## Suminduta

SUTzeko arrazoi bat baino gehiago izaten dugu, baita eman ere! “Egunkaria”ren itxiera- ren 17. urteurrena bete den honetan, argi ikus- ten da hori. Euskara hutsean argitaratzen zen egunkariak horixe sortu baitzuen; euskara mehatxu bezala ikusten dutenen gorrotoa muturrera eramatea eta alde egiten dugunon haserrea azaleratzea. Orduan ere, Debako Zuhatza Euskara Elkarteak *Berriketan* hilabe- tekaria plazaratzen zuen debalde, gaur bezala- xe. Doan izateak ez du esan nahi, ozto- po, zailtasun eta lanik ez dagoenik guztiaren atzean.

MINDU egiten nau jendeak normalizat harteak hilero institutuan, Arkatzan edo Galtzan *Berriketan* egotea. Ikasketak D ere- duan egin eta kalean euskara baino erdara gehiago entzuteak. Belarriak eta bihotza min-

tzen zaizkit; hitzak, berriz, kontrako ezarririk joaten zaizkit, mingain puntan ezin eutsita. Gure gurasoen garaian, zenbat aldiz entzun diot amari, ikurrina debekatuta zegoenean, Euskal Jolasen ipini zutenekoa... Itziarko Ama Ikastola sortu zutenekoa, guk euskaraz ikas genezan... Euskaraz bizitzeko.

(E)TA guk zer egiten dugu? Batzuk ikasto- la garaitik ari dira eta beste batzuk bagabiltza Zuhatzen (Mintzalagunetan, Kolore Anitzen edo *Berriketan*-en laguntzen), Apakinen nahiz Euskaraldian, eta zu? Ez al zaitu egoerak min- tzen edo sutzen? Badakizu horretarako gaia inportantea izan behar dela norberarentzat. Hala bada, Deban aukerak badituzu aldatzen laguntzeko; suak eta minak eragiten duen energia negatiboa aurrera eta euskaraz era- mango gaituen indar positibo bihurtzeko.



**ITZIAR  
ARANA**

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

*Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**Argazkilaria**  
Ander Salegi

*(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)*

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



OIHANA ESNAOLA

### Itxoiten

Iaz enaren inguruko zutabe bat idatzi nuen. Aurtengo nire intentzioa honi jarraipen bat ematea zen, zutabe horri lotuta gertaera polit bat baitzegoen. Ordenagailua piztu, eta di-da, xehetasun batzuen faltan baina zutabea ia prest laga nuen ordenagailuko mahai-gainean. Ez naiz batere trebea idazte kontu hauetan eta pozik nengoen egindako lanaz. Bidali aurretik, ordea, hainbat datu baieztatzeko tartea hartu nuen eta horiek baieztatu nituenean, ordenagailua piztera joan eta... ezin mahaigainera heldu!!! Informatikari bati deitu eta ez dakit zenbat ordu telefonoz ordenagailu aurrean egon ondoren (itxialdiko lehenengo eguna zen eta denbora behintzat izan nuen horretarako), ordenagailua formateatu behar zela ez zidan esan ba?? Ondorioz, mahaigainean neukan dena, karpetatan neukan dena, galdu nuen, baita zutabea ere.

Eta halaxe ordenagailu formateatu berriaren aurrean eseri nintzen bigarrenengoz. Baina aurreko idatzia buruan izan arren, ez nituen hitz egokiak aurkitzen. Ez dakit hau zuei ere gertatu izan zaizuen inoiz, baina idatzitakoa burutik ezin berreskuratu alde batetik, eta bestetik, bizitzako egoera guztiz aldatuta... beste zerbait idatzi behar nuela pentsatu nuen. Eta hemen nago, itxialdiko hirugarren egun honetan etxetik lan egiten, "home schooling"-aren alde onak eta txarrak nire balantza pertsonalean neurtzen. Eta itxoiten... hara eta hona dabilen birus bidaiari honek noiz alde egingo duen, udaberriarekin batera?, eta itxoiten... enarei lekua noiz egingo dien. Beren etorrerak eguneroko hoberik ekarriko ahal digu behintzat!

## Balkoiak eta zakurrak

Sukaldeko leihotik ikusi zaitut berriz,  
fabriketako sirenek ez dute jo oraindik...  
eta ez dirudi joko dutenik, gaurkoan.

Eskerrak!  
Baina hor zeunden zu,  
zakurrak paseatzen  
egun osoa.

Eta horregatik,  
hatzez salatzen zaitut!  
Zu, nire miserien errudun zaren hori!  
Zure erruz izango dute gertukoek kutsatzeko aukera gehiago.  
Zure erruz luzatuko da konfinamendua.  
Zure erruz galduko dut lanpostua.  
Zure erruz ez naiz hilabete bukaerara iritsiko.  
Arduragabe hori!

Ez dizu ardura jendearen osasunak.  
Ez dizu ardura goseak,  
Minak,  
Sufrimenduak!  
Are, ongi datorkizu!  
Gure mina eta sufrimendua zure gosea asetzeko baino ez baitira,  
zaren gaixo kronikoaren osasun bila.

Eta horregatik,  
horregatik ez zenituen mugak itxi behar zenean,  
ez zenuen esentziala ez zen produkzio oro gelditu,  
behar zenean.  
Ez dituzu ez-ohikotasunaren aitzakiapean kaleratuak babestuko,  
ez etxea infernu dutenak,  
ez mehatxutzat duzun haren laguntzarik onartuko ere,  
behar denean.

Eta hor zabilta, egunero paseoan.  
Itxura eginez.  
Zu, amildegira garamatzen gidari hori!  
Sakrifizioa erromantizatuz,  
ongi orokor ez hain orokor baten defentsan.  
Kriminal ederra zaude egina zu!  
Sistema kriminala!  
Eta, nola ez,  
zakurrak ere... halamoduzkoak!

Gu ez ordea!  
Eta horregatik,  
soilik horregatik geldituko gara etxean.  
Ardura dugulako!  
Baina egon lasai,  
ardura baitugu jendearen minarekiko ere.  
Sufrimenduarekiko.  
Eta horregatik,  
soilik horregatik,  
aterako gara bihar kalera!  
Hatzez seinalatzetik  
ukabilez kolpatzera!

## Asteroko buletin digitala kaleratuko du Debako Udalak

Asteroko maiztasunarekin buletin digitala argitaratzen hasi da Debako Udala. "Herritarrekiko komunikazioa eta Udalaren jardunaren gardentasuna areagotzeko" handitu du Udalak buletin honekin herritarrekiko informazio-jarioa. Apirilaren bigarren astetik aurrera, beraz, ostiralero udal buletina bidali die emailaz horrela eskatu duten herritarrei.

Jada erabiltzen diren komunikazio-tresnei gehituko zaie hau. Azken

asteotan bizitzen ari garen egoeraren ondorioz bereziki, herritarrentzat interesekoa eta baliagarria izan daitekeen informazioa sortzen da etengabe. Horregatik, buletin honekin udal gobernuaren helburua da ahalik eta herritar gehienek izan dezaten zuzeneko informazioa.

Buletinera harpidetu nahi izatekotan (doakoa da), inprimaki bat bete eta bidali behar da: [https://labur.eus/Deba\\_UdalBuletina\\_HARPIDETZA](https://labur.eus/Deba_UdalBuletina_HARPIDETZA).

## Aberri Egunean ere balkoiak protagonista

Aurtengoan egoera berezian harrapatu gaitu Aberri Eguna eta, beraz, baldintza berezietan ospatu zuten alderdiek.

Euskal Herria Batera herri-ekimena ekimen zehatzak proposatu zituen: Nafarroako bandera eta ikurrina balkoietan jartzea, koronabirusak utzitako hildakoen omenezko minutu bateko isilunea gordetzea, eta ondoren "Txoriak txori" eta "Ikusi mendizaleak" kantatzea. Gainera, aurretik dei egin zieten euskal herritarrei Euskal Herri osotik ateratako argazkiak bidaltzeko eta gero, Aberri Egunean, horiekin osatutako mosaiko kolektibo erraldoi bat kaleratu zuten.

EH Bilduk bat egin zuen deialdi horrekin bere osotasunean. EAJk, berriz, koronabirusak utzitako hildakoen omenezko isilunearekin eta balkoietan ikurrinak jartzeko deialdiarekin egin zuen bat. Debari dagokionez, Udalak koronabirusak hil dituenen omenez xingola belzdun ikurrina zintzilikatu zuen udaletxean eta, horrez gain, adierazpen instituzional bat ere adostu eta kaleratu zuten EH Bilduk eta EAJk. Eguerdiko 12:30ean jende asko irten zen balkoietara deialdiekin bat egitera eta, arratsaldean zehar, udaltzaingoaren ibilgailu bat kalez kale ibili zen "Txoriak txori" abestia lau haizetara zabalduz.



**GORKA AGIRREZABALA**

### Betirako?

Ordu asko, egun asko, urte asko, sentipen asko...

Gustuko duzun zerbaitek zure bizitza hein batean baldintzatzen dizunean, ez dira erraz ikusten egiten ez diren eta atzean uzten diren beste hainbat gauza. Askotan, zerbaitetan urte asko daramagunean, bizitza ezberdin bezain berri bati izaten diogu beldur pixka bat, aldaketaren amildegira gerturatzen garenean handik ikusten dugun zokogunearengatik. Ilusioz eta gogoz, buru-belarri sartu garen baso horren irteera, bidean zimeltzen eta loratzen joan izan diren loreek erakusten digute sarri.

Urteetan nire bizitzaren zati edo oinarri izan denaren aldaketa aberasgarria izaten ari dela ere baieztatu nahiko nuke. Lehenxeago aipatutako basoko loreak ez dituz ez moztu ez ahaztu, aitzitik, beraiekin bizi izanak pertsona modura aberastu nau. Bizitzak hainbat loraldi izaten ditu bakoitzaren ibilbidean: ikasketak, lana, amodioa, taldeetan parte hartzea... batzuetan epe luzeak izan ohi dira eta hauek atzean utziz gero, aurrean datorrenari gogotsu ekiten diogu, baina atzean utzitakoari erreparatuz. Pozik sentitzen naiz egindakoaz eta orain arte neureganatutako balioekin beste alor batzuetan hemendik aurrera egin ahaliko ditudanez.

Lore bakarrak zailago du bere egunerokotasunean zimeltzearen aurkako dema gaintzea, baina lore-sortak indar zein kolore erakustaldi zoragarriagoa du edozeren aurrean, politagoa izateaz gain.

Gaur egun hain beharrezkoa den elkarlana zein auzolana bultzatzeko gonbitea luzatu nahiko nizueke lerro hauen bitartez. Izan gaitezen lore-sorta!



### DEBAKO NAGUSILAN

Zahartzaroa batzuetan familia giro goxo batean pasatzen da, baina askotan, adinduaren osasun egoera kontuan hartuta, ezin. Arazoak, zailtasunak eta zainketa beharrak suertatzen dira eta senideek laguntza behar izaten dute. Arazo honi bakar-dadearen kutsua ere antzeman ohi zaio. Orduan, urte zail hauetan, dena korapilatuta, bakardadeari nola ihes egin burutazioetan, zainketa on baten bila, ia beti ahulduta, ia beti indargabetuta, egoitzetara edo eguneko zentroetara bideratzen dituzte adinekoak.

Eta hona hemen Nagusilan elkar-tearen eragina, zeregina: erresidentzietara eta eguneko zentroetara gerturatu, beraiekin egon, hurbiltasuna erakutsi, kartetan, kinan eta abar jolastu. Sarritan kanta bat edo beste abestu, orokorrean kantuan aritzea gustatzen zaie eta. Hemen, Deban, asteen birritan ordubete pasatxo beraiekin egoten gara zentroan,

pozik, irribarre artean.

Debako Kalean Kantuz eta Kalez Kale Txistulari Taldea noizean behin alaitzera joaten dira zentrorra. Donostiako partaide Jose Inazio eta Roberto ere animatzera etortzen dira; denak ongi etorriak izaten dira beti.

**“Nagusilan 2002. urtean sortu zen Deban, Alejandro Goikoetxea aitzindari izan zelarik. Gaur egun, hamar lagunez osaturik dago taldea”**

Jarduera hauek, eta puntualki etxean bakarrik bizi denari laguntza eskaintzea (medikuarengana joateko eta abar), Gizarte Zerbitzuen ardura-pean burutzen dira beti.

Nagusilan 2002. urtean sortu zen Deban, Alejandro Goikoetxea aitzin-

dari izan zelarik, berak animatu zituen herriko hainbat pertsona Nagusilaneko kide izatera.

Gaur egun, taldea hamar lagunez osaturik dago; batzuk joan zaizkigu eta beste batzuek erretiroa hartu dute. Taldeko arduraduna hilean behin Donostiara joaten da, eta han Gipuzkoako boluntarioekin elkartu eta informazioa jaso. Urtean behin asanblada orokorra egiten da Gipuzkoa mailan. Urtean zehar beste herrietako partaideekin batera txango bat edo beste ere egiten da eta eguna giro onean pasatu.

Taldearen eginkizuna oso polita iruditzen zaigulako, herriko jendea Nagusilanen parte hartzera animatu nahiko genuke. Gure saririk onena beraien begiradak eta irribarreak jasotzea izaten da.

Hilabeteko lehenengo larunbatean, Ifar Kaleko 12 zenbakian, beheko solairuan, biltzen gara. Interesatuta bazaude, han topatuko gaituzue.



**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalca, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

*Zuhatza*


**943 191 383**

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)





# BATZUK LANEZ LEPO ETA BESTE BATZUK, BERRIZ, ERABAT GELDI



Aldizkari honen ixte egunean, Espainiako Gobernuak presidenten Pedro Sanchezen aginduetara, gutxika-gutxika oinarrizkoak ez zirelako eta tele-lanik egin ezin zutelako erabat gelditu zeuden hainbat lan-sektore ari dira itzultzen beren egunerokotasun arruntera. Hala ere, oraindik hezkuntza eta ostalaritzak, esate baterako, geldi jarraitzen dute.

Hasiera batean, apirilaren 26ra arte luzatu zuen Espainiako Gobernuak konfinamendua; zurrumurruek ziotena baitsiz, dena den, hilaren 18an Sanchezek


iragarri zuen alarma egoera beste bi astez luzatuko zuela, maiatzaren 9ra arte, eta konfinamendua "mailaka" kenduko dutela. Era berean, apirilaren 27tik aurrera 12 urtez azpiko haurrentzat irteera mugatuak baimentzeko asmoa iragarri zuen presidentek berean.

Bizi dugun egoerak argazki kuriosoak utzi dizkigu Deban eta Itziarren ere. Sektore batzuk lanez lepo eta beste batzuk, berriz, erabat geldi.

Gizarte alorrari dagokionez, martxoan Udalak sortu zuen zaintza-sarea osatu zuten herritar boluntarioek gogotik dihardute lanean baita, elkarren osagarri, Gurutze Gorriak ere. Lehenengoak, batik

bat, irten ezin direnei erosketak egiten dabilta eta bigarrenak, berriz, elikagaiak erosteko arazo ekonomikoak dituzten etxeetara elikagaiak eramaten.

*Berriketan*-ek errealitate berezi honek gure herritarrei nola eragin dien ikusi nahi izan du eta informazio hori lehenengo pertsonan jaso. Horretarako, konfinamenduaren gaiak modu desberdinetan eragin dien lau alor (**osasuna, hezkuntza, gizarte gaiak** eta **ekonomia**) hautatu ditugu eta horietako bakoitzaren adierazgarri izan zitezkeen hainbat herritarrengana jo. Ondorengo sei orrialdeetan beraiek bizi izandako esperientzietatik abiatuz esan dizkigutenak jaso ditugu.





**MIQUEL SAUMELL**  
27 URTE  
Farmazia gradua (EHU/UPV)  
Ikertzaile predoktorala

**“Orain gogoratzen gara ikerkuntza biomedikoak edo osasun-zerbitzuek gure gizartean duten garrantziaz”**

dituen prozesu biokimiko ezberdinak aztertu ditut.

**Koronabirusak alarma guztiak piztu ditu... Zein da horrelako gaixotasun baten sendagaia aurkitzeko prozesua?**

Gaur egun ez dugu birus honen aurkako txertorik ezta pazienteak tratatzeko farmako espezifikorik. Normalean sendagai berrien garapen-prozesua 5-10 urte bitartekoa izaten da. Izan ere, koronabirusaren aurkako konposatuak aurkitu behar dira eta hauen segurtasuna eta eraginkortasuna frogatu. Hala ere, osasun-larrialdi honek ziurrenik sendagaiak aurkitzeko epeak laburtzea eragingo du. Adibidez, txertoren bat 18 hilabetez izateko aukera dagoela adierazi dute.

Bitartean, beste gaixotasun infekziosoetan erabiltzen diren farmakoak koronabirusarentzat eraginkorrak diren frogatzen hasiak dira.

**Pandemiari aurre egiteko lehia martxan da... Zer deritoxozu honen inguruan?**

Osasun-krisi honetan ere gizateriaren ongizatea interes ekonomiko eta politikoekin nahasten da. Txertoaren garapena mundu mailako lehiaketa bihurtu da, batez ere Txina eta AEBen arteko borroka zientifiko eta geopolitiko.

**Zein da osasun arloko ikerketari ematen zaion garrantzia? Eta inbertsioak?**

Koronabirusaren krisiarekin gogoratzen gara ikerkuntza biomedikoak edo osasun-zerbi-

tzuek gure gizartean duten garrantziaz, baina ez dugu ahaztu behar bi sektore horiek 2008. urtean krisi ekonomikoa hasi zenetik oso murrizketa handiak jasan dituztela. Gaur egun, EAEn BPGren % 1.85 inguru bideratzen da I+D-ra, Europako herrialdeen batez bestekoa baino baxuagoa dena. Honek guztiak gure egunerokotasunean ikertzeko baliabide gabezia eta langileon prekarizazioa ekarri du. Gazte ikerlarion lan-baldintza duinen aldeko mobilizazioak ugariak izan dira azken urte hauetan.

**Nola ikusten duzu zure etorkizun profesionala?**

Ez dut nere burua atzerrian lan egiten ikusten, beraz, EHUn saiatuko naiz ikerkuntzan lan egiten, zaila izan arren.

**Zertan zabilta uneotan? Zertan datza zure doktoretzatesia?**

Azken 5 urte hauetan egin-dako ikerketa-lana laburtzen eta tesi defentsa prestatzen nabil. Nire ikerketa-proiektua farmakologia eta neurozientzien disziplinen barruan kokatzen da eta garunean aurkitzen den proteina batean zentratu da, CB1 hartzaile kannabinoidean. Proteina honek garuneko neuronetan martxan jartzen



**JON ETXANIZ**  
39 URTE  
Fisioterapeuta eta osteopata

**“Ezin ditugu ahaztu itxialdiak sortu ditzakeen gorabehera emozionalak”**

**Itxialdiak gure osasuna babesteko neurri modura duen garrantziaz ohartarazi gaituzte, baina osasunari eragin diezazkiokeen kalteez ez hainbeste.**

Argi dago osasunaren ikuspuntutik itxialdian egotea ez dela inorentzat ere egoera mesedegarria, bizi-tza osasuntsua eramateko behar ditugun hainbat jarduera oztopatzen baititu: mugimendua, naturarekiko kontaktua eta, izaki sozialak garen heinean, pertsonetikiko harremana, besteak beste.

**Zein gomendio emango zenieke herritarrei itxialdirako?**

Goian aipatutako oztopoak baldin baditugu ere, gomendagarria litzateke ahalik eta bizitza osasuntsuena egiten jarrai-

tzeta, bakoitzak dituen baliabideen baitan. Egunerokotasunean mugimendua eta elikadura osasuntsua izatea, lo orduak errespetatzea, eta norberarekiko eta besteekiko harremanak elikatzea.

Ezohikoa den egoera da bizitzen ari garena eta ezin ditugu alde batera utzi honek gudan sortu ditzakeen gorabehera emozionalak. Hainbat emozioen artean, gaur egun jakina da beldurra bezalako emozioek sistema immunean duten eragin negatiboa. Aurrez aipaturiko ohitura osasuntsuez gain, arnas-keta ariketak egitea lagungarria izan daiteke eta dugun gain-informazioaren aurrean babestea eta jarrera kritikoa izatea ere bai.

**Itxialdia amaitzen denaroko ere gomendioren batzuk**


**ondo etorriko zaizkigu...**

Bizi dugun egoeraren ostean, euforian erortzeko aukera asko ditugu, honek izan ditzakeen arriskuekin. Euforia honek astakeriak egitera eramanez gaitzake, neurri kanpoko ariketa fisikoa, esate baterako. Beraz, itxialdiaren ondoren garrantzitsua izango da bakoitzak bere burua entzun eta bere erritmoak errespetatzea.

**Galdetu ez dizugun zerbait nabarmendu nahi zenuke?**

Pandemia egoeran kutsatzeko beldurrak bestearen gorputza arrisku bezala bizitzera eramanez gaitzake, eta itxialdia bukatzean interesgarria litzateke gure gorputzaz gain besteekin kontaktua izateko dugun beharraz eta honek duen garrantziaz ere jabetzea.





**AMAIA SUKIA**  
44 URTE  
Luzaro HLHI-ko zuzendaria

## “Ikastetxean ditugun baliabideak familien eskura jarri ditugu eta saiatu gara guztien zailtasunei aurre egiten”

erabiliz irakasleek lanak bidaltzen dizkiete ikasleei.

### Zein zailtasun nagusirekin egin duzue topo egoera berriari aurre egiterakoan?

Zailtasun handienak teknologia aldetik izan ditugu; familiei lanak helarazi eta hauek jasotzeko garaian.

### Ikasle guztiak dituzte etxetik ikasgaiekin lanean jarraitzeko baliabideak?

Familien artean egoera anitzak aurkitzen dira; ordenagailuz lan egin dezaketena, lanak emailez jaso baina ordenagailurik ez dutenak, lanak paperez jasotzen dituztenak,... ikastetxean ditugun baliabideak familien eskura jarri ditugu

eta saiatu gara guztien zailtasunei aurre egiten. Hala ere, lanak inprimatzeko garaian askok zailtasunak izan dituzte eta arazo horren aurrean familia ugari elkarriz laguntzen aritu dira.

### Uneotan behintzat ez dakigu ikastetxeak noiz zabaldu ahalko diren berriz ere. Ikasturte hasierako helburuak betetzea posible izango da? Aldaketarik edo neurri berririk aurreikusitako al duzue?

Ikasturterako aurreikusitako helburu guztiak betetzea ezinezkoa da. Hemendik ikasturte bukarara maila bakoitzeko gutxieneko helburuen lorpena bermatu behar dugu, eta

horretarako, gelditzen zaigun denbora honetan landu beharrekoaren aukeraketa bat egin beharko dugu.

### Etxean den ikasleari zer gomendatuko zenioke hau guztia modu eraman-garri eta baikorrean bizi dezan?

Bai ikasle zein familia osoari eskolatik ematen diogun gomendioa, lasai hartzearena da. Ez-ohiko egoera honetan oso urduri gaude guztiok eta ahal den neurrian gauzak patxadaz hartzeko esaten diegu. Hori bai, ez gaude oporretan, guztiok egin behar dugu lan, eta horretarako, eguna antolatzeko eta errutina batzuk hartzea da hoberena.

**Haurrak eta baita zuek ere etxean egon behar izanda, nola antolatu zarete ikasturtearekin aurrera jarraitu ahal izateko?**

Ikasleak etxean gelditze-ko agindua egun batetik bestera iritsi zen eta lanak arrapaladan prestatu behar izan genituen. Azken eskola-egunean liburu eta lan batzuekin bidali genituen eta ondoren bide ezberdinak



**JULIA RON**  
20 URTE  
Antropologiako ikaslea

## Ziurgabetasuna da ikasle guztiok partekatzen duguna

moduan guztiz murgilduta harrapatu ninduen ni: Unibertsitat Autònoma-n Antropologia ikasketetako bigarren urtea burutzen, klase orduen ostean sos batzuk lortzeko pare bat ordu lan egin, eta buruan hamaika asmo nituela.

Astelehen goiza, 08:30. Antropologiaren historiako klase birtuala: bi aste lehenago klase osteko garagardoak hartzen genituen elkarrekin, orain barregarria da pantailaren beste aldetik klasekideak gosaltzen ikustea. Bi irakasle bakarrik eskaintzen dituzte klase telematikoak, gainerakoek irakurketak bidali eta lanak eskatzen dizkigute, eta egutegia astero zortzi aldiz aldatzen. Ikasle bakoitzak egoera ezberdin bat bizi duen honetan (supermerkatuetan lanaldi

amaigabeak, anaia-arreba gazteak zaindu beharra...) ziurgabetasuna da denok partekatzen duguna.

Horrek, hala ere, gure arteko elkarkidetasuna areagotu du: gelakide guztiok aho batez hartzen ditugu erabakiak, edozein duda galdetzen diogu elkarriz, irakurketa interesgarriak gomendatzen... “zer moduz?” batekin hasten da mezu oro. Irakasleetako batzuk ere askoz gertukoago ditugu. Bat-batean gure izenez deitzeaz gain, euren hausnarketak partekatzen dituzte, gurekin berandu arte debartzeko irrikatan daudela dirudi. Urruti sentitu gaituztenean edo, gure iritziak jakin-mina sortu du haiengan. Sare sozialen presentzia are izugarriagoa da ikasle bizitzako beste hain-

bat aspektutan: lanetik ERTE bat ezarri digute eta Whatsapp bidez komunikatu, pisukideok, Skypean ginela, email bat idatzi diogu inbiliarari alokairuaren etenaldia eskatuz, gazte asanbladetan Youtube bidezko hitzaldiak antolatzen ditugu...

Baina interneteko plataformek distraitzeko ematen diguten informazio saturazioatik at, badugu hausnaretarako tartea bilatzerik. Krisiek ez dizkigute giza-biziraupenerako ideia-zaparrada itzelak bakarrik eskaintzen, ez, baita bizitza hauek nola, norentzat eta nondik bizi jakiteko begirada berriak ere. Oraindik zapaldu ez dugun bide bat zabaldu zaigu, galderak eginez ekingo diogu.



**EUNATE URKIA**  
43 URTE  
Lau seme-alabaren ama  
Txistu-irakaslea

### Itxialdiaren fase ezberdinak gure etxean

Itxialdi honek fase ezberdinak izan ditu gure etxean.

Lehen egunetan ederki, tarteka umeak plazoletara jaisten ziren jolastera. Senarra eta biok ordubetez ibiltzeari eutsi genion eta bakoitzak bere "espazioa" zuen etxean.

Baina alarma egoera dekretatu zuten eta akabo

irteerak. Hasieran mila ideia genituen etxean umee-kin gustura ibiltzeko eta pentsatzen det familia gehientsuenek bezala egin genuela; orain bizkotxoak, orain partxisa, orain ezkutaketa...

Bigarren fase batean, ordea, emailak hasi ziren heltzen barra-barra (eskola-koak, extraeskolaretakoak, lanekoak...). Impresorarik bat ere ez, eta ordenagailua bakarra. Nik telelana eta 3 seme-alaba zaharrenek ere ordenagailua behar. Txandak finkatzea tokatzen zen.

Portatileko akosoa jasan ezina izan zen. Ez ziren lan asko, lan txikitxoak metaketa baizik, eta boron-

date onenarekin bidaliak, dudarik gabe. Baina, azken-erako, saturazio-puntua "piko"raino iritsi zen.

Orduantxe ohartu ginen: ezohiko egoera honetan, pauseri ematea tokatzen zen, ezin genuen kanpoko estresa etxe barrura ekarri, baliabiderik ezaren estres gehigarriarekin gainera. Gizarte estresatu honetatik jaitea erabaki genuen, rutinak aldatu eta gure familiaren momentuko benetako beharretara egokitzea.

Azkenik, hirugarren fase bati ekin genion, ederrenari: etxekoez gozatzeko faseari. Umeek goizetan beraien lanak egiten dituzte baina guk erabakitako gauzak.

Ikasteko mila modu daude! Wing tsun egin dugu odola mugitzeko, masaje, josteta, okindegi sesioak ere bai, balkoian diana jo dugu, algarak bota ditugu, elkarrekin haserretu gara... baina segidan adiskidetu! Elkar hobeto ezagutu dugu. Balkoia berritu bizi-tu ditugu eta pareko bikotea ume baten esperoan dagoela konturatu gara. Zorionak bikote, eta animatu familia ugari bat osatzera, merezi du benetan!

Orain pentsatzen jarrita, ez da hain txarra izan hau dena; datorren urtean berriz! *kar kar!!*

Eta bukatzeko, nola ez, mila esker bizilagun guztioi zuen pazientziagatik!!



**NEREA OREGI**  
45 URTE  
Komertzial teknikoa

### "Zaintzailearen ikuspuntutik, ondorio astunak ditu isolamenduak"

erabaki genuen. Gure kasuan, kontratatutako neska hori gure amarekin bizi da asteleheneetik ostiralera bitartean.

Koronabirusaren ondorioz daukagun isolamendua dela eta gure, eta seguruenik gure antzeko egoeran dauden familien, eguneroko ohiturak dezente aldatu dira bai. Horrela esango nuke:

Alde batetik, lehen eguraldi ona egiten zuenean kalera irteten ginen. Irtenaldi horrek nire amari haize freskoa hartzeko balio izateaz gain, jarduera fisikoa egiteko aukera ere ematen zion. Jarduera fisikoa oso garrantzitsua da horrelako muturreko egoeran

dagoen gaixo baten eguneroko ongizatea ziurtatzeko. Orain, etxe azpian dagoen garajea saiatzen gara jarduera fisikoa pixkatxo bat egiten.


Bestalde, zaintzailearen ikuspuntutik, isolamendu honek nahiko ondorio astunak ditu. Normala den moduan, langile hauek eguneroko etenaldi bat egiteko eskubidea daukate, beraiek nahi duten edozein jarduera egiteko. Egoera berezi honen ondorioz, etenaldi hori egiterakoan etxe barruan egotera behartuta daude.

Aurreko egoera horiez gain, gure kasu pertsonala hau da: bai ni, bai nire neba Debatik kanpo bizi garenez,

amaren etxera joan-etorriak egitera behartuta gaude. Nahi eta nahi ez horrek kezka sortzen digu, izan ere, desplazamenduak murrizteko kontrolak jarri dituzte eta sekula ez da jakiten norekin egingo duzun topo.

Azkenik, isolamendu honen ondorioz, nire seme-alabak, beste haur guztiei gertatzen zaien moduan, ezin dira amama bisitatzera joan, kutsatzeko arriskua gutxitzeko. Nire kasuan, ordea, neurri hori ez da betetzeko hain erraza, horrek beste eragozpen bat eragiten dit, izan ere, batzuetan umeak bakarrik ez uztearren, nirekin eramatera behartuta bainago.





**JAGOBA EGAÑA**  
27 URTE  
Kale hezitzailea, Arrasate  
eta Mutrikuko Gizarte  
Zerbitzuetan

## Ongizaterako erronka berriak

Martxoaren erditik aurrera bizitzen ari garen erabateko aldaketa dela eta nabaria da gizartean zabaldu den ziurgabetasunak askorengan bertigo handia eragin duela. Eguneroko antolakuntza eta inguruko-ekiko harremana oso baldintzatuak geratu dira, eta argi dago horrek zailtasun handiak eragin dizkigula

bizi paradigma berrira egokitzeko. Momentu honetan badirudi egoera normalizatuan dauden pertsonak edota unitate familiarrek aurrera egingo dutela zailtasun handirik gabe, baina zer gertatzen da behar bereziak dituztenekin edota baztertzeko arrisku egoeran dauden edo egon daitezkeenekin?

Burura etortzen zaizkit alde batetik egonkortasun ekonomikorik ez duten familiak, alokairua ordaintzera iristen ez direnak, edota sostengu ekonomiko zaien lanpostua mantendu ahal izateko zalantza dutenak. Bestetik, familia-giroa egokia ez den kasuak ere badaude, familia-unitateko kideen beharrak eta elka-

rren arteko gatazkak areagotzeko arrisku egoeran.

Puntu horietatik abiatuz, ezinbestekoa da nerabe eta gazteengan zentratzea, adin gakoa baita beraien pertsonalitatea eta bizi-proiektua eratu edota sendotzeko. Familia askok konfinamenduan duten ziurgabetasunak eta barne gatazkek argi dago gazte eta nerabeengan eragina izango dutela, batik bat pertsona horien osasun emozionalean, autoestimuan zein motibazioan.

Babes-sistema osatzen dugun langileok egun hauetan zehar moldaketak jasan ditugu lanean. Horrek sorturiko erronkari erantzuteko esku-hartze ereduari buelta batzuk eman behar

izan dizkiogu. Horrela, hezitzaileok teknologia berriak erabiltzen hasi gara nerabe, gazte zein familiei gertutasuna adierazteko. Ohiko bihurtu dira bideo-deiak eta komunikazio-plataformen bitartez dinamizaturiko ekintzak.

Oraindik ez dakigu zehazki konfinamenduak ze eragin izango duen gazte, nerabe eta horien familietan, baina argi dago beren beharrak asetzeko zerbitzuak bermatu behar direla. Horregatik, ezinbestekoa da instituzio eta arduradun politikoek, kolektibo horien ongizaterako lanean ari diren zerbitzuak eten beharrean, merezi duten babesa eta lehentasuna ematea.



**IRATI BAROJA**  
25 URTE  
Berdintasan teknikaria

## Paretetako arrakalak

eraila; Miren, bikotekideak etxean eraila; Paola, aitak etxean eraila. 2017az geroztik EAEn erail dituzten emakumeak dira.

Covid-19a dela eta, etxean egotea egokitu zaigu, baina, hau ez da emakume guztientzat espazio segurua. Emakundeko datuei erreparaturaz, 2019an 4.419 emakume izan ziren indarkeria matxistaren biktima eta horietatik 3.098k (% 70,1) bikotekidearen edo bikotekide ohiaren erasoak jasan zuen. Askok dira bestalde, indarkeria jasan arren, salaketarik jartzen ez dutenak, edota indarkeria psikologikoa bizi, eta beraz identifikatzeko tresnarik ez dutenak: bikotekideak beldurra

eragiten dietenak, bikotekidearen emozioen eta arazo- en erantzule direnak, bere buruarekiko konfiantza galarazi diotenak...

Emakumeen babesa lehen lerroan jartze aldera, ez dira indarkeriari loturiko datu asko argitaratzen. Hala, ezin dezakegu jakin Deban zenbat emakumek salatu duten eraso matxistaren bat, ezin dezakegu jakin salaketa horiek non jazo diren eta zein izan den emakume horien adin-tartea. Baina demagun lerro hauek irakurtzen ari dela, ari zarela agian, eta indarkeria pairatzen duzula identifikatu duzula. Maitena Monroy autodefentsa feministan adituak emandako hainbat gako dira

honakoak: nolabaiteko salaketa egin nahi baduzu ez adierazi zure asmoen berri erasotzaileari, eta ez egin aurre gizonari ez bada etxetik ateratzeko; dei ezazu 900840111 telefonora edo konfiantzazko bizilagunen etxera joan.

Eta, zu bazara erasotzaile, zer egingo duzu? Beti jartzen da fokoa emakumearengan, baina sentitu al zara zu inoiz deseroso besteen begiak zure gain daudela sumatuz? Izan al zara inoiz seinalatua, mespretxuz begiratua, baztertua? Zure gabeziak eta boterea indarkeria eta jazarpenaren bidez kudeatzen badituzu, agian zu zara etxetik alde egin behar duena.

Ana Belen, bikotekideak autoan eraila; Rakel, semea eta bera bikotekideak etxean eraila; Noelia Noemi, bikotekideak etxean eraila; Elvira, semeak etxean eraila; Maguette, bikotekideak etxean eraila; Maria Jose, bikotekide ohiak etxean eraila; Florentina, suhiak etxean eraila; Sophia, ezezagun batek gasolindegian



**IDURRE OSTOLAZA**  
43 URTE  
Ingeniaritza eta enpresa zientziak

**Koronabirusaren aurretik krisi baten atarian geundela entzuten zen, zein egoeratan harrapatu du pandemia honek Euskal Herriko ekonomia?**

2019ko azken hiruhilekokoan alorreko adituek eman zituzten datuen arabera, urtea BPGren (Barne Produktu Gordina) % 2,2ko igoerarekin amaitu, eta 2020rako igoera % 1,9an zegoen aurreikusita, 2020an zehar enpleguak sortzen jarraituko zuen aurreikuspenarekin. Beraz, esan daiteke aurreikuspenak, oro har, ez zirela txarrak.

**Ekonomian etenaldia egon-**

### “Elkartasunez jokatu beharko dute sektorerik ahulenak babeste aldera”

**go dela aurreikusi daiteke, eta nola eman ahal izango diogu buelta egoera horri?**

Bai, hala da. Eskura dauden datu makroekonomikoez baliatuz, aurten euskal ekonomiak eman dituen datuak eguneratuta eta koronabirusak eragindako egoera honek iraungo duen denboraren aurreikuspenak kontuan hartuta, alorreko adituen arabera 2020ko BPGk % 3,6ko jaitsiera jasatea litekeena da eta horrekin batera lanpostuak suntsitza. 2021ean, berriz, aurreikuspenen arabera, BPGk % 2,6ko igoera izango du.

Kontuan izan behar da, era berean, etenak ez duela berdin eragingo sektore guztietan; sektore batzuek asko sufrutuko dute eta beste batzuek, aldiz, krisia saihestu ahal izango dute.

Beraz, ezer aurreikustea oso zaila izan arren, euskal ekonomiaren alde esan behar da, iraganak erakutsi izan digula, Ikerketa, Garapena eta Berrikuntzaren alde apustu

egiten duten ekonomiek suspertze-ratio hobeak izaten dituztela. Nolanahi, eta betiere, elkartasunez jokatu beharko dute Europa mailatik udal mailara arte, tarteko enpresa eta erakunde guztiak barne, ekonomia eta biztanleriaren sektorerik ahulenak babeste aldera.

**Koronabirusari aurre egiteko ekonomia edo osasuna zein lehenetsi iritzi desberdinak entzun ditugu hainbat eragileren artean; ika-mika handia sortu da.**

Osasuna nire ustez, gizakiok baikara sistema ekonomikoaren funtsezko atala, eta horregatik gaude konfinamenduan. Kutsadura-ratioak Osasun Sistema kolapsatu gabe kontrolatuak izan daitezten, norbanako osasuntsuak beharrezko dira. Gero eta norbanako osasuntsu gehiago izan ekonomia errazago suspertu ahal izango dugu aurrerantzean.

**2008ko krisi ekonomikoari aurre egiteko banketxeek**

**diru-laguntza publikoak jaso zituzten. Egungo krisia gainditzen laguntzeko banketxe eta enpresa handiek esku bat botatzeko modua izango dutela uste al duzu?**

2008ko krisia finantza-krisi bat izan zen eta behar zuten bankuei lagundu zitzairen, sistema kolapsatu ez zedin.

Oraingo honetan, errealitatea da bankuak eta erakundeak sendoago daudela, eta hirugarren galderaren erantzunaren ildo beretik, bankuek ere, enpresa diren neurrian, krisia gainditzen lagundu beharko lukete, enpresa txikiei eta autonomoei likidezia erraztuz, eta biztanleriaren sektorerik ahulenei babes soziala emanaz.

**Galdetu ez dizugun zerbait gehitu nahi zenuke?**

Krisi guztietatik irteten, eta haietatik ikasten dela; eta denon artean gai izan beharko genukeela giza balioz betetako gizartea eraikitzeko, sistema ekonomiko jasangarri bat lagun.



**ROSA SUKIA**  
73 URTE  
Fruta eta barazki-saltzailea

**Dendaria zara, baina enpresari eta autonomia ere bai. Nola bizi duzu koronabirusaren gaia?**

Errespetu handiarekin, baina lanean jarraitzen dugu.

### “Jendeak erosketak etxetik hurbilen dagoen dendan egin behar dituzenez, dendari txikien salmenta handitu egin da”

Ezarritako arauak betez aurrera goaz.

**Zuen saltokia irekita dago, kanpotik lehengo antzera ikusten da zuen erreallitate; eta barrutik?**

Irekitzeko aukera izateak lehengo egunerokotasunera hurbiltzen gaitu. Horrek eta gure arteko harreman onak, egoera hobeto eramaten laguntzen digu.

**Ohiko salgaiak lortzeko arazorik ba al daukazu egu-**

**notan, adibidez?**

Produktuak lortzeko ez daukagu arazorik. Kontua zera da, lehen goizeko 04:00etan esnatzen ginen Bilboko merkatura joateko, orain, berriz, merkatuari jende-pilaketak ekiditeko erosketak bi txandatan burutu behar izaten dira eta, beraz, dendara beranduegi ez itzultzeko ordubete lehenago joan behar izaten gara.

**Bezeroen kontsumo-joeretan aldaketarik ikusi**


**al duzue azkenaldian?**

Jendeak erosketak etxetik hurbilen dagoen dendan egin behar dituzenez, dendari txikien salmenta handitu egin da aste hauetan.

**Zerbait esan nahiko al zenieke bezero edo herritarrei sasoi honetan gauzak errazte aldera?**

Guk lanean jarraitzen dugu eta gure herriari laguntzeko gure eskuetan dagoen zerbait behar bada prest gaude egiteko.





**MARIAN JUARISTI**  
62 URTE  
Tabernaria

**“Itsulapikoa dirua isuriz etengabe, eta sos tantatxorik sartzen ez dela”**

**Tabernaria zara, baina enpresari eta autonomoa ere bai. Nola daramazu koronabirusaren krisia?**

Hasieran susto galanta, zerbait bazetorrela ikusten nuen eta ezin asmatuta nola kudeatu egoera. Zalantza uholdeak; noiz arte ateak itxita? kutsatuta ote gaude jadanik? Langileei zer esan? Dena ordaintzeko gai izango al naiz?... Galdera asko eta eran-

tzun ustelak besterik ez buru-ahotan. Eta orain, hiru aste baino gehiagoko itxialdiarekin bizkarrean, arduratuta nago. Hedabideek esaten dutena irakurriaz, berrogeialdiaren amaiera noiz etorriko zain. Ezin baitugu ezer gehiago egin, etxean gelditu bakarrik eta zain egon.

**Taberna itxita daukazu. Diru sarrerarik ez, hortaz, baina gastuak?**

Ateak itxita mantendu bitartean, nire poltsikora ez da dirurik sartzen. Baina gastuek berberak izaten jarraitzen dute; argia, ura, aseguruak, telefono-faktura... luze joko luke gastu guztiak izendatzeak. Itsulapikoa dirua isuriz etengabe, eta sos tantatxorik sartzen ez dela.

**Neurri zorrotzak hartu behar izan dituzue dagoeneko galera ekonomikoak txikitze aldera, adibidez?**

Bai, gure aholkulariak esana jarraituz ERTE egoeran jarri ditut langile guztiak, neu izan ezik, autonomia bainaiz.

**Laguntzarik jaso al duzue egoera honi aurre egiteko? Hala bada, zer nolokoak?**

Oraingoz ez dugu inolako laguntza ekonomikorik jaso. Egia da horrelako egoera bat bizi izatea ez zaidala sekula egokitu. Udaletik deia jaso dugu, gure egoeraren inguruan galdezka. Badakigu gauzak mugitzen ari direla, zerbait egin nahian dabilzala. Baina laguntza horiek epe luzera etorriko

direlakoan nago.

**Koronabirusa: taberna ezin zabaldu, herritar gehienak etxean, turistarik ez herrian... Nola ikusten duzu zuen etorkizuna? Posible izango al da egoera honi buelta ematea?**

Hala espero dugu, egoera larri honi buelta emateko gai izatea. Ez guk tabernari bezala, gizarteak baizik. Egoera honek asko zailduko du dena; langabezia, beldurra, ziurtasun eza, etxe askotako ekonomia okertzea...

Itxialdia amaitu ondoren ere, luze joko du lehen genuen egoerara bueltatu arte. Aurtengo urtea gogorra izango delakoan nago, Aste Santua ateak itxita. Ea udarako egoera hobetzen den.



**BORJA LEKUBE**  
32 URTE  
Garraiolaria

**“Benetan zaila da autonomoen inguruan entzundako baldintzak betetzea”**

**Espainiako Gobernuak zehaztutako funtsezko zerbitzuen artean dago garraiolari batzuen jarduna. Hori al da zuen kasua?**

Bai, hala da. Zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditugu enpresan; ospitaleetan material elektrikoa banatzen dugu, adibidez, eta funtsezkoa da zerbitzu hori eskaintzen jarraitzea. Horrez gain, kontserbak ere eramaten ditugu (janaria), hori ere funtsezkoa. Eta tailerretako honda-

karrik arriskutsuak jasotzeko zerbitzua ere eskaintzen dugu (funtsezkotzat jo dute hori ere).

**Industriaren jardun gehienak eteteak nola eragin dizue zuen egunerokoan?**

Eragin handia izan du, noski. Enpresa askok itxi egin dute; beraz, lana asko murriztu da, horrek dakartzan ondorioekin.

**Zein babes-neurri hartu behar izan dituzue zuen lana segurtasunez egiteko?**

Gure lanean, zorionez kasu honetan, bakarrik egoten gara eguneko ordu gehienetan. Bakoitzak bere kamioia bakarrik ukitzen du eta bertan ez da beste inor sartzen. Beraz, alde horretatik, nahiko seguru gaude.

Bestetik, enpresetara helitzen garenean, ez gara haietan sartzen; eskularruak eta mas-

karak jantzi eta pare bat metroko distantzia errespetatzen dugu beti edozeinekin. Berrito ere gidatzen hasi aurretik, eskuak desinfektatzailearekin berriz garbitu eta aurrera jarraitzen dugu.

Hartzen ditugun neurriak nahikoa ote diren ez dakigu ziur, badirudi-eta birus hau edonork pasa edo har deza-keela.

**Errepidean zabilzate. Zein eremutan mugitzen zarete? Egoera honetan zuen egunerokoan aldaketa handirik sumatu al duzue?**

Euskal Herri mailan mugitzen gara gehienbat egunerokotasunean, eta puntualki Madril, Zaragoza, Santander, Frantziara... Lan-murrizketa jasan arren, eremu berberetan gabilza orain.

**Ba al daukazu mezurik norbaiti helarazteko?**

Momentu zailak dira gutxiontzat; bakoitzarentzat bere neurrian, baina txarrak denontzat. Uste dut hau luzerako izango dela, baina konfiantza handia dut pertsonengan. Denon artean aurrera aterako gara, erakunde- en laguntzarekin, espero. Badakigu ordainketa batzuk egiteko epeak luzatu dituztela eta mailegu bereziak emango dituztela ere esan dute, baina autonomoen inguruan ez dut ezer zehatzik entzun, eta entzundako baldintzak betetzea benetan zaila da. Jende kopuru zabala gara eta krisi-garaietan desagertzeko arrisku handia dugu.

Erakundeei babes eta elkarlana eskatuko nieke. Eta gure lantaldeari eskerrak eman, gurekiko duten konpromisoarengatik.

Hezkuntza sistemaren ohiko funtzionamenduan ere nabarmen eragin du koronabirusaren krisiak, noski. Aste batzuk pasa dira herriko ikastetxeak itxi zirenetik eta klaseak online ematen ari dira harrezkero. Mendatako Prentsa Tailerrak ere teknologia berriak baliatu behar izan ditu *Berriketan Gaztea* prestatzeko. Institutuaren itxieraren inguruko albistea ez ezik, ikasle gazteen egunerokoen pasarte batzuk ere helarazi dizkigute oraingoan; hona hemen ezohiko egoeran eskaini diguten ezohiko ekarpena.

## COVID-19 DELA ETA MENDATA ERE ITXITA

Beste institutuen eta eskolen antzera, Debakoak ere bere ateak itxi behar izan ditu

Joan den martxoaren 12an, Gipuzkoako nahiz beste lurraldeetako ikastetxe guztiak itxi zituzten eta, haiekin batera, baita Mendata BHI ikastetxea ere. Itxiera hori gure osasunari begira hartutako erabakia izan zen, horrelako lekuetan errazagoa baita gaixotasuna zabaltea.

Martxoaren 13an, ostirala, irakasleak ikastetxera joan behar izan ziren klaseak nola eman eta abar adosteko eta informatzeko. Egun horretan ikasleei berriak eman zizkieten: nola antolatuko eta komunikatuko ziren hurrengo egunetan, zer egin eta nola, zalantzaren bat bazuten idazteko...

Oraindik ere klaseak online ematen ari dira. Horretarako *classroom* aplikazioa erabiltzen dute,



irakasleek agindutako lanak eta proiektuak egin eta bidaltzeko. Hainbat irakaslek bideoak egiten dituzte, zuzenean klaseak emateko edota ikasleek zalantzak galdetzeko aukera izan dezaten. Beste batzuek txat bidez egiten dute. Metodo horiek ikasleek ikasten jarraitzea ziurtatzen dute.

Ikasleek diote batzuetan arraroa eta apur bat konplikatu egiten zaiela horrela lan egitea. Gauzak ulertzeko edo dudak galdetzeko orduan zailagoa baita; ez da berdina irakasle aurrean daukazunean galdetzea edo horrela egin behar izatea.

Egoera hau asko luzatzen ari da eta ez da erraza inorentzat, baina denon artean aurrera aterako gara.



### Prentsa tailerra 2019-2020

Leire Acebes, Nora Ait Akki, Kerman Aizpurua, Ione Aranberri, Ane Castillo, Urko Garcia, Kimetz Oñederra, Nadia Peralvo, Ibai Perez, Amalur Ponce, Nerea Urbizu, Maddi Urkiri eta Haizea Zubimendi.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

#### laguntzaileak:



#### babesleak:





# IKASLE BATEN EGUNEROKOA



## **\*Martxoaren 18a, asteazkena**

Goizero bezala, iratzargailuak esnatu nau. Ohetik kostata jaiki naiz baina konektatuta egoteko beharrezkoa da, klaseak classroom aplikazioaren bidez egiten baititugu. Gosaldu eta ordenagailu aurrean eseri naiz, 8:25erako jada irakasle batzuek bidali dituzte lanak. Alde batetik, ondo iruditzen zait klase ordua baino lehen lanak bidaltzea, hartara denbora gehiago baitugu horiek egiteko, baina goizeko lehen orduan hamar mila lan zure ordenagailuko pantailan ikustea ere ez da ba polita! Goiza ordenagailuan pasa dut etxeko lanak egiten, bazkaltzeko ordua iritsi den arte.

## **\*Martxoaren 19a, osteguna**

Gaur hamarrak aldera esnatu naiz. Ohean pixka bat geratu naiz, ez nuen eta ezertarako gogorik, baina gero etxeko lanak egin ditut. Arratsaldean amama eta aitxitxari enkarguak eramatera joan naiz, kutsatzeko arrisku handiena dutenak direlako. Kaleak triste ikusten dira ez dagoelako inor, baina hori momentu hauetan beharrezkoa da.

## **\*Martxoaren 20a, ostirala**

Ez dirudi ostirala, ez daukat ostiraletan edukitzen dudan sentsazioa, poztasuna. Goizean, aitaren etxera etorri naiz eta, bertan, nire aitarekin bizkotxo bat egin dut. Gero eskaileretan korrika ibili naiz, eta gainerako denbora guztian balkoian egon naiz, aulki batean musika entzuten, oso gustura!



## **\*Martxoaren 22a, igandea**

Goizean, sofan etzanda egon naiz. Ez neukan ezer egiteko, eta etzanda egotea gustatzen zait. Arratsaldea berriro ere play stationean jolasten igaro dut, nire denbora librea jolasteko gehien gustatzen zaidana baita PS4a. Afaldu eta gero ohean sartu naiz, mugikorrarekin Youtube-n bideoak ikusten. Normalean bideojokoei buruzko bideoak ikusten ditut, baina AuronPlay eta Wismichu ere ikusten ditut.



## **\*Martxoaren 23a, astelehena**

Gaurko nituen etxerako lanak eginak nituen; horregatik, esnatutakoan lasai nengoan, ez nuen azkar-azkar lanik egin beharrik. Gosaldu eta egunean bertan jarri dizkiguten etxerako lanak egiten aritu naiz, egunero bezala. Ez ditut guztiz bukatu, baina nekatuta nengoenez, telebistan musika ozen jarri eta sofan jarri naiz lasai-lasai. Egia esan, oso gustura egon naiz. Bazkaldu eta gero, bideo-deia egin dut amamarekin, nahiz eta bera mugikorrarekin oso ondo ez konpondu, eta gero lehen-gusinarekin.



## **\*Martxoaren 25a, asteazkena**

Apa, zer moduz? Ondo? Ba pozten naiz.

Nik kalera irteteko kriston gogoa daukat, bizitza normala egiteko kriston gogoa. Lagunekin geratu, beraiekin hitz egin, besarkatu, berriren bat kontatu, barre egin, jauzi, berriz ere barrez lehertzen hasi... negarrez bukatu arte, ez dakit... Balletean hasteko gogoa ere badaukat, ez dakit... faltan botatzen dut. Dantza egin... Ondo pasatzen dut bertan, taldean nahiko adin-tarte handia egon arren, uste dut ez garela gaizki moldatzen, gustura nago (nahiz eta batzuetan lotsa apur bat pasa, kar-kar!).

**Erredakzioaren oharra:**

Koronabirusaren ondorioz, etenda jarraitzen dute kultur, kirol eta, oro har, jende-pilaketak eragiten dituzten jarduerak, baita zerbitzu ugari ere. Aldizkari honen edizioa ixtean, oraindik ere ez genekien noiz arte mantenduko den egoera, baina maiatzaren 9ko data aipatu zuten agintariek. Herriko agendan aurreikusitako zenbait hitzordu jaso ditugu txoko honetan, baina baliteke horiek ere bertan behera utzi behar izatea datozen egunotan.

**APIRILAK 27, ASTELEHENA**

-18:00. **Solasaldi gaztetxeroa** ("Debako Gaztetxea" Youtube kanalean). Gonbidatua: Asier Blas. "Covid-19 krisiaren inplikazio geopolitikoak". Oraindik ere hurrengo hitzorduak zehaztu gabe dauden arren, solasaldiak hurrengo astelehenetan ere egingo dira ziurrenik.

**MAIATZAK 15, OSTIRALA**

-17:00. **Odol emaleen hitzordua** Luzaro ikastetxean. Odol ateraldia egoera berezi honek eskatzen dituen babes neurri denekin egin ahal izateko, ohiko baldintzak alda litezkeela ohartarazi du Odol Emaileen Elkarteak.

**Lehiaketak**

-Haitz-Haundi Elkarte Artistikoak haur eta gazteei zuzendutako **margo lehiaketa** abiatu du, konfinamendua arindu nahian. Gaia librea da eta etxean dituzten materialak erabili beharko dituzte partaideek. Oinarriak ikusteko: elkartearen edo turismo bulegoaren facebook orriak.

-**Animadeba**. Maiatzaren 4ra arte zabalik dago XIII. Animadeba animaziozko film laburren nazioarteko lehiaketan parte hartzeko aukera -irailaren 3tik 6ra bitartean egingo da jaialdia-. Lehiaketaren oinarriak ikusteko: [www.animadeba.com](http://www.animadeba.com).

**Aisialdi eskaintzak, bide ezberdinetarik**

Itxialdia ahal den neurrian eramangarriago izan dadin, herriko hainbat eragilek euren eskaintzak moldatu edo berritu dituzte. Debako Udalaren facebook orrian aurki daitezke horietako zenbait, eta talde bakoitzaren sare sozialetan bestelakoak.

-**Debako Kontalariek** ipuin bat eskaintzen dute egunero.

-**Debako Gaztelekuak Ziber Gaztelekuak** jarri du abian; ekintza ugari egiten ditu egunero (jokoak, zumba, sukaldaritza...).

-**Debako Kiroldegiko** langileek etxean egiteko ariketak proposatzen dituzte, bideo bidez (pilates, tonifikazio klaseak...).

-**Kulunka Dantza Taldeko** kideen ekimenez, etxean dantzan ateratako argazkiak sare sozialetara igotzen dituzte dantzariak.

**KZgunea**

-Egoitza itxita duen bitartean, KZgunea urrutiko laguntza zerbitzua eskaintzen du, telefonoz eta posta elektronikoz, zalantza teknologikoak argitzeko. Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo [www.kzgunea.eus/eu/urrutiko-asis-tentzia](http://www.kzgunea.eus/eu/urrutiko-asis-tentzia) ataria.

**ZAINTZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **apirilak 24, 25, 26.**  
**maiatzak 4, 5, 6, 7, 22, 23, 24.**

Burgoa Zuazo: **maiatzak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**  
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: apirilak 25 / maiatzak 2 eta 23

BURGOA ZUAZO: maiatzak 9 eta 16

**9:30 - 13:00**



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460

E-mail: [asketa@telefonica.net](mailto:asketa@telefonica.net)

[www.asketa.net](http://www.asketa.net)

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9

20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**AUKERA**  
INMOBILIARIA

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



**Uzuri**  
optika audio

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN**



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12



LIZ.-ZK.: 3

**Taxi Alain Deba**

WiFi

**636 135 008**  
alain@taxideba.eus

www.alain.taxideba.eus

MARIJE CASTRO IRIBARREN



- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

MASAJISTA

**28 URTEKO ESPERIENTZIA**

Tel.: 677 557 615

**DEBA**

RAIKETAK S.L.

**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behe 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com

A  
D

**ASESORIA DEBA**

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

**ALBIZU**

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

LENTZERIA

**Azoka**

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tfnoa.: 943 192 722 • DEBA

**ARKATZA**

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

# KOLORE ANITZ BEGIRALEEN LAN POLTSA

Kolore Anitz aisialdi taldea begiraleen lan poltsa osatzen ari da udara begira dituen ekintzetarako. Gurekin lan egin nahi baduzu bidali zure curriculuma gure helbide elektronikora maiatzaren 1a baino lehenago.

## Baldintzak:

- Euskara maila altua.
- Aisialdiko begirale titulua.

**koloreanitz@gmail.com**

Zuhatzza  
Euzko Aisialdi Taldea Deba





*Leihoaren bestaldean ahaztuak genituen landareak  
kimatzen eta ureztatzen hasi gara.*

*Eta loratu dira.*

*Kukuak etxe ondoan kantuan hasi dira.*

*Eta hurbildu dira.*

*Ozeano eta itsasoetako arrain saldoak bakean uzten hasi gara.*

*Eta ugaltu dira.*

*Lehen enarak Afrikatik iristen hasi dira.*

*Eta pausatu dira.*

*Kristalaz beste aldera dauden mendi tontorrek desiratzen hasi gara.*

*Eta berdetu dira.*

*Lingira iluneko urak zapaburuz betetzen hasi dira.*

*Eta gardendu dira.*

*Goizetako usapal, zozo eta txantxangorrien  
kantuak ezberdintzen hasi gara.*

*Eta aireratu dira.*

*Soro-muxarrak esnatzen hasi dira.*

*Eta sagaitu dira.*

*Pareko berdeguneko zuhaitzari hostoak  
nola hazten zaizkion zenbatzen hasi gara.*

*Eta gorritu dira.*

*Urrutira joan gabe, metro eta erdira  
gauza ederrik badela konturatzen hasi gara.*

*Eta urruneko testigu isil bilakatu gara.*

*Goizane Aizpurua*

*Zabal dezagun euskara  
etxetik mundura*

*Zuhertza*  
euskara elkartea *deba*